Bilduma hau eskizofreniaren diagnostikoari eskainitako lehenagoko argitalpen batekin hasten dugu; argitalpenean kontzeptuak eguneratu nahi izan ditugu, eta interesgarritzat jo ditugun beste gai batzuk ere sartu. Lehen ale hau batez ere buru gaixotasun handiren batek eragiten dien pertsoneri eta familiei zuzenduta dago, eskizofreniari buruz argibide erabilgarri gehiago emate aldera.

BURU-GAIXOEN ETA SENIDEEN BIZKAIKO ELKARTEA (AVIFES: ASOCIACIÓN VIZCAÍNA DE FAMILIARES Y PERSONAS CON ENFERMEDAD MENTAL)

1986an sortu zen, buru gaixotasuna zuten pertsonen senide talde baten ekimenez, Buru Osasunaren arloari eskaintzen zitzaizkion baliabideen urriaz jabeturik, elkarte baten inguruan biltzea erabaki baitzuten, gaixotasun hau duitzeko eta baliabideen sorkuntza erreibindikatzeko, sumatzen ziren beharizan ugariei erantzuna emate aldera. Irabazasmorik gabeko erakundea da, erabilgarritasun publikoa aitortu zaiona.

Bizkaian buru gaixotasuna duten pertsona guztiei eta euren familiei autonomia pertsonala, bizi kalitatea eta komunitateratzea lortzeko biritza guztirako laguntza pertsonalizatuak ematea da bere misioa, eta, hori guztia, eurei eskubide osoko herritar direla ziurtatuz.

20 urte pasatxo hauetan, familien, profesionalen, eraginpeko pertsonen, boluntarioen eta instituzioen konpromiso eta lanarekin, gizarteak talde honetaz duen ezjakintasun itzela gainditzea lortzen ari da, askotan bereizkeria eta gizartetik baztertzea jasan izan baitute.

Beharrezkoa da buru gaixotasuna duten pertsonak indarjabetzea, eskumen handiagoak izan ditzaten bizitzako arlo guztietan osorik garatzeko, eta euren autonomia pertsonalik handiena eta komunitatean parte hartze aktiboa izan dezatela bultzatzea.

Buru gaixotasuna duten pertsonentzako baliabide eta laguntzak handitzen joan dira zenbait eremutan; ildo horretan AVIFES elkarteak hainbeste zerbitzu kudeaten ditu, baina oraindik ere laguntza handiagoak eta toki gehiago sortu behar dira.

Autonomia ertsonala Bultzatzeko eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen Arretarako 39/2006 Legea (Menpekotasun legea), buru gaixotasuna duten pertsonak ere aintzat hartzen dituena, aukera bat da.

3 ZER DA ESKIZOFRENIA?

Psikiatriako nahaste ohikoenetako bat da, hain zuzen Munduko Osasun Antolakundearen arabera ustez biztanleriaren %1 da jasaten duena (hau da, 100 pertsonako bati eragiten dio), eta mundu guztian gizonei eta emakumeei berdin eragiten die, ezberdintasun sozio-ekonomiko edo kulturalak gorabehera.

Ondoez kronikoa da, buru gaixotasun sakonaren paradigma, hots, termino horren barruan buru gaixotasun larriak, luzeak eta maila aldakorreko ezgaitasun edo gizarte disfuntzioa dakartenak sartzen dira.

Eskizofrenia terminoa lehen aldiz 1911n erabili zuen Eugen Bleuler doktoreak. Hitzez hitz itzulita buru zatitua edo puskatua esan nahi du.

Eskizofrenia psikosiaren taldekoa da (psikosia errealitatea ebaluatzeko gaitasunaren hondamen larria da, bizitzaren eguneroko beharrei erantzuteko ahalmenean nabarmen eragiten duena); pertzepzioaren, pentsamenduaren eta emozioen funtsezko distortsio tipikoak dira bere ezaugarriak.

4 NOLA JAKIN PERTSONA BATEK ESKIZOFRENIA DUEN?

Diagnostikoa espezialista kliniko batek egin behar du miaketa psikopatologikoan eta historia klinikoan oinarrituta.

Diagnostikoa egitea ez da lan erraza, sintoma asko gaixotasun ezberdinenak direlako, sintomak denboran aldatzen direlako, edo ingurugiro ezberdinetan ere bai, eta gaixotasunak pertsona bakoitzean sintoma ezberdinak agertzen dituelako.

Eskizofrenia diagnostikatzeko ez da beharrezkoa sintoma guztiak agertzea; horietako baten bat konbinatuta edo bat oso nabarmen agertuz gero, besterik gabe, nahikoa izan liteke.

Gehienetan gaixotasuna 15 eta 35 urte bitartean hasten da, eta lehen agerraldia izan baino lehen norbanakoak, oro har, bizitza normala izan du.

Hasiera bat-batekoa izan daiteke, kolpean, baina ohikoena apurka eta isilka agertzea da, portaeraren aldaketak astiro eta mailaka gertatuz, adibidez:

- Bakartzea edo gizartetik aldentzea.
- Ikasketetan edo lanean interesa eta errendimendua galtzea.
- Higienea eta garbitasuna baztertzea.
- Portaera arraroa eta haserrealdi bortitzak.

Senideei zail egiten zaie portaera horiek ulertzea, eta pertsona «aro txar bat pasatzen» ari dela pentsatzen dute; baina, halako batean, fase aktiboko sintomaren bat agertuaz batera (ahotsak entzun, pertsona horrek ahotsokin hitz egiten duela, edo arraro portatzen dela), gauza serio bat gertatzen ari dela konturatzen ditra, eta, orduan, galdetu eta laguntza bilatu beharra sumatzen dute.

5 ZEINTZUK DIRA SINTOMAK?

Eskizofreniak oso era ezberdinetan eragiten die pertsonari, baina zenbait sintomak gaixotasunaren ezaugarri dira.

Sintoma horiek talde handi bitan sailkatu ditzakegu:

SINTOMA POSITIBOAK

Hala deritze, ez pertsonarentzat onak direlako, lehen ez zituelako eta orain badituelako baizik, gaixotasunarekin agertuta; ez dira ageri jendeagan oro har.

ELDARNIOZKO IDEIAK

Okerreko usteak, pertzepzioak edo esperientziak txarto interpretatzearen ondorioz, eskuarki.

- Pertsonak uste du bera pertsegitzen, gogaitarazten, engainatzen, espiatzen edo irrigarri uzten ari direla.
- Zenbait keinu, zenbait iruzkin edo liburu, egunkari, abesti edo telebistako zenbait pasarte edo inguruko beste zenbait elementu, bereziki berari zuzenduta daudela uste du.
- Bere pentsamenduak kanpoko indar batek atzitu dituela uste du (pentsamendu lapurreta).
- Bere gorputza edo ekintzak kanpoko indar batek kontrolatzen dituela uste du.
- Bakantasun sentipena du; baliteke beste norbait dela sinetsita egotea.
- Gai espiritual edo erlijiosoen gehiegizko kezka erakusten du.

HALUZINAZIOAK

Ez dagoen zerbait sumatzea da.

- Maizen entzumenezkoak gertatzen dira: hotsak edo ahotsak entzutea, pertsonari zuzentzen zaizkionak, egiten duena iruzkintzen dutenak edo euren artean hitz egiten dutenak. Ahotsek gauza atseginak edo zakarrak esatea litekeena da, iraindu edo mehatxatzea, edo aginduak ematea gerta liteke, eta pertsona esanekoa egitera behartuta sentitzea, eta horrek larritasun handia sortzen dio.

Ahots horiek benetakotzat ditu pertsonak eta batzuetan erantzun egiten die.

- Haluzinazioek gainerako zentzumenei ere berdin eragin diezaiekete, hain sarri gertatzen ez bada ere, esate baterako:
 - Bere gorputza edo gorputz atalen bat aldatu dela sentitzea, edo azkura edo inurridura sentitzea (zenestesia-koak).
 - Usain bitxi edo eraldatuak hartzea (usaimenezkoak).
 - Jaten dituen zenbait gauzatan bitxitasuna sentitzea (dastamenezkoak).
 - Gauza arraroak ikustea edo daudenak eraldatuta ikustea (ikusmenezkoak).
 - Estimuluekiko berebiziko sentikortasuna (zarata, argia). Haserrekortasuna, horren ondorioz.

PENTSAMENDUAREN ERALDAKETAK

- Bere pentsabidearen haria galtzea gerta liteke, gai batetik bestera salto eginaz (lerratzea edo loturak galtzea), edo buru-hutsik geratzea (pentsamendua blokeatzea), pentsakizunak bizkortu egiten zaizkio, oso zail egiten zaio ordenatzea eta taxuz espresatzea, eta ondorioz diskurtso ulergaitza eta jarraitzeko zaila sortzen du.

JOKABIDE ZABARRA

- Janzkera xelebrea.
- Inorako ez diren ibilaldi, bidaia edo paseadak.
- Aztoramen iragarrezina, gehiegizkoa eta arrazoigabea.
- Haurkeriazko portaera.
- Baliteke jarrera zurrinak hartzea eta mugitzeari aurka egitea gogortasunez.

Sintoma positibo horiek handitu edo larritu egiten direnean, pertsona krisialdian dagoela edo agerraldi bat duela esaten da eta baliteke ospitaleratu behar izatea.

SINTOMA NEGATIBOAK

Jendeagan ohikoak diren jokabideak (pertsona honek lehen bazituenak), eraginpeko pertsonakan falta direnak edo urritu direnak.

Lehen taldeko sintomak deigarriak eta bitxiak badira ere, sintoma negatiboak dira pertsonaren bizimodua benetan mugatzen dutenak:

- Gizartetik bakartzea, harremanetarako eta elkarrizketarako zailtasuna, bakartzea, beldurra eta susmoa.
- Atseginik eza, lehen gogoko zituen gauzekin atsegina sentitzeko eta bizitzaz gozatzeko zailtasuna.
- Gogorik eza, jarduera zehatzetan hasi eta ekiteko ezgaitasuna.
- Geldotasuna, motibazio galera handia. Nekatuta sentitzen da, gauzak egiteko ahalmenik gabe.
- Lur jotze afektiboa: zailtasuna emozioak espresatzeko, aurpegieran erantzunik ez, emoziorik agertzen ez duela.
- Herstura edo gehiegizko beldurra.
- Norberaren garbitasuna baztertzea.
- Pentsamendua eta hizkera pobretzea.

- Arreta arazoak, lanean edo irakurketan kontzentratzeko arazoak.

Eskizofrenia hainbat modutara ager badaiteke ere, gaixotasun bakartzat hartzen jarraitzen da; baina, pertsonak ebaluatzeko unean agertzen dituen sintoma nabarmenenak edo behinenak kontuan hartuta, mota hauek bereiz daitezke:

PARANOIDEA

- Ezaugarri nagusia: entzunezko haluzinazioak eta pertsekuzio, handikeria eta jelsokortasun ideia eldarniozkoak. Anizkunak izan daitezke, baina arlo koherente baten inguruan.
- Beranduago hasten da.
- Ezagutza ahalmena eta afektibitatea neurri batean mantentzen da.
- Beste motek baino pronostiko hobea du, lan jarduera hobea eta bizitza burujabea.

ZABARRA (HEBEFRENIA)

- Ezaugarri nagusiak:
 - Hizkera zabarra
 - Portaera zabarra
 - Afektibitatea lur jota edo ezegokia
- Barre arrazoigabeak, mintzagaiarekin zerikusiri kez dutenak.
- Egin nahi duenari buruzko zehaztapenik ez.
- Eldarniozko ideiak eta haluzinazio zatikatuak, gai koherente baten inguruan antolatu gabe.
- Keinuak, manierismoak, bitxikeriak.
- Hondamena test edo proba neuropsikologikoetan.
- Nortasun premorbido pobretuari lotua.
- Hasiera goiztiarra, apurka eta isilkakoa.

KATATONIKOA:

- Ezaugarri nagusia psikomotrizitatearen eraldaketa da:
 - Jarrera zurrunik, bitxiak edo ezegokiak, espresiorik gabea.
 - Keinu deigarriak.
 - Gehiegizko jarduera helburu zehatzik gabe.
 - Muturreko negatibotasuna.
- Loroaren moduan edo zentzurik gabe errepikatzen ditu entzuten dituen esaldiak edo hitzak (Ekolalia).
- Imitazio errepikakorra (Ekopraxia).

BEREIZI GABEA

- Eskizofreniaren sintomak ditu, baina mota jakinen bat bereziki nagusitu gabe.

HONDAKINEZKOA

- Ezaugarri nagusia: sintoma negatiboak nagusi:
 - Afektibotasuna lur jota
 - Hizkeraren pobretasuna
 - Gogorik eza
 - Atseginik eza
- Iraganean gutxienez behin sintoma positiboak izan ditu.
- Gaur egun eldarniozko ideiarik, haluzinaziorik, hizkera zabarririk edo portaera katatonikorik ez dauka (eta badauka, oso motelduta).

SINPLEA

- Ezaugarri nagusia: hondakin eskizofreniako ezaugarri diren sintoma negatiboak (sorgortasun afektiboa, gogorik eza), baina haluzinazioen, eldarniozko ideien eta iraganeko agerraldi psikotikoen aurrekaririk gabe.
- Garapen geldoa eta progresiboa.
- Jokabide pertsonalaren aldaketak, interes galera, nagikeria eta gizartetik baztertzea ezaugarri dituztenak.

Eskizofrenia burmuineko gaixotasuna da. Ez dago oraingoz kausa zehatza jakiterik, baina kausa anitzek bat eginda sortzen dutela ziurtatzea badago. Eskizofrenia, beraz, ez da agertzen kausa bakarragatik, hainbat eragileren emaitzagatik baino: eragile genetikoak, burmuinaren kimikako eta egiturako aldaketak, birus infekzioak, garunetako lesioak eta abar.

Zenbait ikerketa ildo eta kontzeptu eredu daude, azken ondorioetara iritsi ez direnak, baina bata bestea ere baztertzen ez dutenak. Beharbada orain arte onartuena *kalteberatasun-estres eredua* da, hau da, gaixotasuna jasateko kalteberatasuna litzatekeela jaraunsten dena, eta gaixotasuna agertzeko beste eragile batzuk behar direla, eta, horren ondorioz, faktoreak, aurrejoerakoak, abiarazleak eta mantentzaileak bereizten dira:

AURREJOERAKO FAKTOREAK

- Genetikoak: biztanleriak oro har %1eko probabilitatea du eskizofrenia izateko, baina gurasoetako batek gaixotasuna jasaten badu %10 joko luke eta aita-ama biek jasanez gero %40.

- Biokimikoak: eraldatuta aurkitu izan dira neurotransmisore batzuen mailak, hala nola dopamina eta serotoninarenak.
- Haurdunaldiko eraldaketak, erditzean izandako arazoak.

FAKTORE ABIARAZLEAK EDO BULTZAGILEAK

Bizitzako gertakari estresatzaile batzuk jazotzeak pertsona kalteberei gaixotasuna agerraraz diezaike, hala nola, maite den norbait galtzeak, bizilekua aldatzeak, unibertsitatean sartzeak, soldadutza zerbitzuak, lanean hasteak edo lana galtzeak...

FAKTORE MANTENTZAILEAK

Gaixotasuna abiarazi ondoren, sintomak okertu edo mantentzen dituzten egoera batzuk identifika ditzakegu, eta beste batzuk, aitzitik, kalteberatasun maila gutxitzera jotzen dute:

BABESLEAK

- Botikak hartzea
- Familiako eta gizarteko laguntzak edukitzea
- Zeregin bat mantentzea
- Sintomez ohartzea
- Bizimodu osasuntsua (lo orduen egonkortasuna, toxikorik ez hartzea...)

ARRISKUAK

- Bizitzako gertakariak
- Botikak uztea

- Etxekoen emozio karga gehiegizkoa: gehiegizko babes, kritika, desbalioztatzea.
- Alkohola eta drogak hartzea

Gaixotasun honen eboluzioa askotarikoa da. Hiru herenen araua aipatzen da normalean:

- Eskizofrenia diagnostikatu zaien pertsonen herenak bilakaera ona izan du, sintomak osorik kentzerantz.
- Heren batek bilakaera egonkorra du, gaixoberritzeak eta sintomen egonkortasun eta kontrolaldiak txandakatuz.
- Heren batek bilakaera txarra izaten du, hondamen pertsonal eta sozialerantz.

Gaixoberritzeak ezin dira beti saihestu. Batzuetan berez gertatzen dira, gaixotasunaren kanpoko faktoreekin zerikusirik ez dutela.

Zenbait faktore pronostiko hobeari lotuta daude:

- Aurretiazko egokitzapen ona, hasiera akutua izanik, bizitzako gertakari estresatzaileekin zerikusia duelarik.
- Berandu hastea (helduaroan edo zahartzaroan).
- Emakumezkoa izatea.
- Fase aktiboko sintomek gutxi irautea.
- Krisien arteko aldietan ondo funtzionatzea.
- Burmuineko anormaltasun estrukturalik ez izatea: egindako azterlanetan ez da patologiarik ageri (ordenagailu bidezko tomografia -OTA-, elektroentzefalograma -EEG-, garuneko erresonantzia magnetikoa -GEM-).
- Funtzio neurologiko normala.
- Familian eskizofreniako aurrekaririk eta nahaste afektiborik (polobikoa, beheraldia).

Sarritan krisien aurretik ikur batzuk agertzen dira (prodromoak). Garrantzitsua da horiek ezagutzea, izan ere agerraldi berriak goiz tratatzeko eta, sarritan, ospitaleratu beharrari ere aurrea hartzeko modua emango digu.

Gaixoberritzeko arrisku ikurrik ohikoenak hauek dira:

- Portaera aldaketak
- Egonezina, tentsioa edo urduritasuna
- Haserrekortasuna
- Beheraldi sentimenduak
- Jateko gogoia galtzea edo otorduetan zabarra izatea
- Kontzentratzeko eta gogoratzeko zailtasun handiagoa
- Loa eraldatzea
- Gauzeekin ez du lehen adina gozutzen.

Egoera horietan, jarrera baliotsuak izan daitezke, besteak beste:

- Kasua daraman psikiatrarik kontsulta eskatu.
- Elkarrizketa bilatzea, interesatzen zaion zerbaiten bidez.
- Indarra ematea eta berarekin baikortasunez hitz egitea.
- Eroapena eta tolerantzia.
- Elkarrizketazalea izatea agintezalea barik.
- Une horretan, eskakizun apalagoak egitea edo arazoak konpondu beharra mugatzea.
- Gaixotasunaren sintomak ezagutzen jakin behar da eta nahita egindako jokabidearekin ez nahasten.

Biztanleriaren talde honetan hilkortasuna handia da, hainbeste arrazoi direla eta:

- Medikuntzako zenbait patologiaren arrisku handiagoa
- Gorputzaren osasuna gutxiago zaintzea alde guztietatik
- Toxikoak hartzea
- Bere buruaz beste egitea

Gomendagarriena tratamendu integrala da, kausa anitzeko ereduarekin egiten den bezala. Hala ere, praktikan, batez ere farmakologia nagusi izaten da tratatzerakoan, izenez biopsikosozialak direla esaten bada ere.

Botikak dira oinarritzeko tratamendua, eta sintomak egonkortzeko eta kontrolatzeko eta gaixoberritze gutxiago izateko balio dute.

Dosiak paziente bakoitzari banan-banan egokitu behar zaizkio.

Eskizofrenia (haluzinazioak, eldarnioak, pentsamenduaren nahasteak) tratatzeko botika espezifikoak antipsikotikoak edo neuroleptikoak dira, baina eskizofrenia diagnostikatu zaion pertsonari ohikoena horiekin batera bestelako botikak ere ematea da, aldi berean agertzen diren sintomak tratatzeko, hala nola, antsiolitikoak edo lasaigarriak, beheraldien kontrakoak, aldartea egonkortzekoak eta lotarazleak.

Botika guztiekin gertatzen den bezala, antipsikotikoek efektu sekundarioak daukate: aho lehorra, asaldua, zurruntasuna edo mugimendu murrizketa, idorreria, ikusmen lausoa, dardarak, urduritasuna, loezina, logura, nahi gabeko mugimenduak edo baita aurpegialdeko karranpak ere. Leponexek defentsak murriztu ditzakeenez, hartzen den bitartean odol analisiak egin behar izaten dira hilerok.

Efektu sekundario horiek ez diete berdin eragiten pertsona guztiei.

Batzuk denborarekin desagertzen dira edo gutxitu daitezke dosia txikituz edo baita botika aldatuta ere. Beste batzuetan bestelako botikak (Akinetón, Artane) hartu behar izaten dira nahi ez diren efektu batzuk zuzentzeko, esate baterako, dardarak eta zurruntasuna.

Garrantzi handia du eskizofrenia duen pertsona eta familia informatuta egoteak botiken efektu sekundarioak eta gaixotasunaren sintomak bereizten jakin dezaten. Hortaz, geldotasuna edo apatia eskizofreniaren sintoma bat da, baina logura eta indar falta botika antipsikotikoek ere eragindakoa izan daiteke.

Botika antipsikotikoak edo neuroleptikoak talde bitan sailkatu daitezke:

– Antipsikotiko tipiko edo klasikoak.

Haloperidol, Eskazine, Largactil, Sinogan, Meleril, Etumina dira talde honen barruan merkaturatu diren marketariko batzuk. Oso indartsuak sintoma positiboak kontrolatzeko, baina efektu sekundario zakar askorekin.

– Antipsikotiko atipikoak edo sortu berriak.

- Amisulpiride (Solian)
- Aripripazol (Abilify)
- Clozapina (Leponex)
- Olanzapina (Zyprexa)
- Quetiapina (Seroquel)
- Risperidona (Risperdal)
- Ziprasidona (Zeldox)

Sintoma positiboak hobetzeaz gain, badirudi negatiboek onera eragiten dietela.

Hobeto toleratzen dira eta kontrako efektu gutxiago dauzkate, nahiz eta guztiz libre ez dauden, esate baterako, jangura eta pisua handitzen dituzte edo sexu disfuntzioak sortzen.

Elektrokonbultsio bidezko terapia edo **electroshock** (giza burmuinari korrante elektrikoa ematea), salbuespenetan aplikatzen da, gaixotasunak bestelako tratamenduekin atzera egin ez eta gaixoak bere buruaz beste egiteko arriskua dagoenean.

PSIKOTERAPIA ETA TRATAMENDU PSIKOSOZIALAK

Esku-hartze psikologiko eta sozialak dira, eskizofrenia duten pertsonen koadro kliniko egonkorra izaten, funtzionamendu psikosoziala eta eguneroko jardura hobetzen laguntzera, autonomia maila handiagoa lortzera eta bizitza kalitate hobea izatera bideratuta daudenak.

Ezagutza eta jokabide teknikak, gizarte trebetasunen entrenamendua psikoheziketarako eraginkortasuna erakutsi dute ildo horretan.

Pertsonen hazkuntzan eta garapen pertsonalean lagunduko dieten esperientzia esanguratsuez gozatzearen garrantzia ez da ahaztu behar. Lorpen positiboak esperimendatzea eta bere erabakiak kontrolatzea ona da bere balio sentipena handitzeko. Gaitasunak sendotuta eta behar diren laguntzak eskainita, pertsonak ongizatea eta bere bizitza egitasmo propioa lortzeko aukera izango du, eta horrek oso eragin ona izaten du gaixotasunaren eboluzioan.

Horretarako, laguntza sare bat sortu behar da, pertsonaren ikuspegi orokorrean oinarrituta prozesu honetan harekin batera lan egingo duena.

Baliabide hauek erabilia lortu nahi diren emaitzak honako hauek dira:

- Egokitzeko trebetasunak eta ahalmen funtzionalak (bere burua artatzeko, enplegurako, komunitateratzeko, etxean maneatzeko, lagunak egiteko) hobetzea
- Komunitatean egotea eta parte hartzea, aukerak egitea, gaitasuna eta begirunea ahalbidetuko duten ezaugarriak areagotzea.
- Pertsona osatzen duten dimentsio guztietan ongizatea hobetzea.

FAMILIAREN LAGUNTZA

Familia osagai erabakigarria eta eraginkorra da eskizofrenia duen pertsona tratatzeko. Horretarako zaintzaile lanean lagundu behar zaio, behar duen informazioa, prestakuntza eta orientazioa emanda.

Familiak larritasun, ukapen, ezintasun sentimenduak gainditu behar ditu, eta egoera berria modu baikorrean onartu. Prozesu horretan laguntzeen duten jarraibideak hauek dira, besteak beste:

- Gaixotasunetik eta tratamenduetatik ikasi;
- Eraginpeko pertsonaren eta artatzen duten profesionalen artean lankidetzatza estuko harremana ezarri;
- Bilera eta talde ekintzetan parte hartuta, bakartzea saihestu;
- Eskizofrenia duen senidearekiko helburu apal eta errealistak ezarri;
- Gaixotasunaz eta kezkatzen duten gaiez bai pertsonarekin, bai profesionalekin eta hurbilekoekin naturaltasunez hitz egin.

Familiak, elkarten mugimenduan bat eginda eta ordezkatuta, talde honen beharren eledun bilakatu dira askotan, eta hortik

eskatu dute tratamendurik onenak mundu guztiak jaso ahal izatea, era guztietako baliabideak areagotzea, ikerketa bultzatzea eta gizartearen errealtateari egokitutako lege babeseko neurriak hartzea.

1 SENDATZEN DA ESKIZOFRENIA?

Beste atal batean esan den bezala, portzentaje bat guztiz sendatzen da, baina kasurik gehienetan, pertsonak tratamendua eta neurri egokiak jarraitu beharko dituzte sintomak kontrolatzeko eta egonkor mantendu eta ez gaixoberritzeko.

«Sendatzea» osasuna galdu duenari berriro ematea bada, bere arazolari amaiera ematea, behin betiko konpontzea alegia, adiera hertsia horretan, aitortu egin behar dugu eskizofreniak sendatzerik ez daukala, baina horrek ez du esan nahi epe luzera pronostiko txarra izango duenik.

Egon dauden tratamenduekin eta pertsonari behar dituen laguntzak emanda, burujabe izan daiteke bere bizitzan eta bere helburu pertsonalak lortu eta, horrekin, bizi kalitate on xamarra eduki.

2 ZER EGIN DAITEKE PERTSONAK TRATAMENDUARI UKO EGITEN BADIO?

Eskizofrenian agindutako tratamendua bertan behera uztea, ez betetzea (batez ere farmakologikoa, baina gainerako esku-hartze psikosozialetara heda daiteke), zoritxarrez, oso ohikoa da eta eragin kaltegarriak ditu: pertsona sakonago hondatzen da, sarriago eta luzeago ospitaleraten dute, gehiago sufritzen du bai eraginpeko pertsonak bai bere ingurune hurbilenak eta familia gehiago ahultzen da.

Tratamendua ez betetzea hainbat arrazoik azaltzen dute:

- Eskizofreniaren sintoma bat, sarri agertzen dena, gaixotasun kontzientziarik eza da, eta, beraz, tratamenduari uko egitea. Horretan eragin handia du profesionalak informazioa ezin jasorik ibiltzea da.
- Buru gaixotasuna gaur egun bereiztu eta baztertzen duten gizarte aurreiritziak.
- Botikak luzaroan hartzeak eragiten duen nekea, diabetesa edo hipertentsioa bezalako beste gaixotasun kronikoetan ere gertatzen den bezala.
- Botiken euren efektu sekundarioak (batzuetan botikei leporatzen zaizkie, errakuntzaz, gaixotasunaren beraren errugatik sentitzen diren ondorio zakarrak).

Azken urteotan agertu diren farmako berriak efektu sekundario zakarretatik libreago daudenez tratamenduari atxikita jarraitzea bultzatzen dute.

Era berean, iraupen luzeko formulazio injektagarriak erosoagoak dira eta horregatik tratamenduaren betetze maila hobetzen dute. Asmo horrexekin garatzen ari dira botiken aurkezpen berriak: ahoan urtzen direnak, adabariak ...

Gaur egun tratamendu bat inposatzeko modu bakarra, borondatearen kontra gaixotegiratzea da, pertsonarentzako arrisku egoeretan, medikuaren ziurtagirian edo epailearen erabakian oinarrituta. Hala ere, salbuespenezko neurri hori askotan zaila eta traumatikoa izaten denez, ez du ziurtatzen etxeratu ondoren tratamendua jarraituko denik.

3 ESKIZOFRENIA DUTEN PERTSONAK ERASOKORRAK ETA ARRISKUTSUAK DIRA?

Ez. Gure gizartean –zenbaitetan komunikabideen informazio partzialek eta ikusentzulezaleek elikatuta– oso zabal dabil arriskua eta buru gaixotasuna lotzen dituen aurreiritzia, eta horrek gaixotasunaren kontzeptu negatiboa sorrarazten du eta gizarteak errefusatzea eragiten.

Aurreiritzi horren aurka, eskizofrenia duten pertsonarik gehienak uzkurak dira, geldoak, pertsonen arteko harremanari ihes egiten diotenak. Inguruabar jakin batzuetan baino ez dira erasokor bihurtzen (batez ere tratamendurik jasotzen ez badute).

Portaera erasokorra mehatxugile moduan (euren eldarnio eta haluzinazioen ondorioz) ikusten duten mundutik euren burua defendatzeko eratzat uler daiteke.

Beste kasu batzuetan, arauak errefusatzearen ondorioztat, besteak beste, botikak edo gaixotegiratzea errefusatzearen ondorio gisa, izan ere gehienetan gaixotasuna duela ukatzen duen pertsona bati inposatzen baitzaizkio.

Errealitateak dioskunez, errazago egiten diote kalte euren buruari, besteoi baino, eta aukera gehiago dituzte ekintza erasokor eta iraingarriak jasateko, egiteko baino.

4 NOR DA GAIXOTASUNAREN ERRUDUNA?

Inor ez.

Familiako baten gaixotasunari aurre egitea oso zaila da, eta errua, beldurra, haserrea edo tristura sentimenduak hartzen dituen erantzun emozionala sortzen du.

Sarritan, batez ere gurasoek, euren jokabideak gaixotasuna eragin duen galdetzen diote euren buruari. Familia-ezaugarri patogenoez ziharduten teoriak baztertuta eta zaharkituta geratu diren arren, familiak sarri askotan errudun sentitzen dira ezinbestean.

Gaixotasuna ukatzen duen eta gertatzen zaionari azalpena bilatu nahian dabilen pertsona gaixoak askotan besteei botatzen die bere egoeraren errua, eta horrekin bere sentimendu hori elikatzen du.

Alderantziz, batzuetan ezintasuna eta frustrazioa, gaixotasuna eta bere ondorioak ulertzeko zailtasuna dira familiak haserre erreakzionatzera eta portaera batzuk txarto interpretatzera eramaten dituztenak (adib. pertsona bat alfertzat jotzen dute bere geldotasunagatik).

Sentimendu mota horrek ez dio batere mesederik egiten gaixotasuna hobetzeari, aitzitik baizik, atezu eta gatazka handiagoa eragiten dute. Eskizofrenia duten pertsonentzat eta euren senideentzat egiten diren psikoheziketako programak oso lagungarriak dira gaixotasuna ezagutzeko eta hobeto ulertzeko eta aurre egiteko jarrera baikorrak sortzeko.

5 NOLA JARDUN BEHAR DUT SINTOMEN AURREAN?

Familiak, askotan, ez daki nola jokatu sarritan agertzen diren sintoma eta portaera maneagaitz batzuen aurrean: haluzinazioak, eldarniozko ideiak, horri lotutako jokabide erasokorra...

Jarraian proposatzen diren orientazioen helburua ez da horiek desagertaraztea, jarduterakoan gidalerro izatea, zure jokabidea egokia den ala ez pentsatzearen larritasuna kentzea eta,

ahal den neurrian, familiaren dinamika okerrera joatea ekar lezaketen alferreko gatazkak eta jarrera kritikoak saihestea baino.

Orientazio orokorrak baino ez dira, kasu bkaoitzera egokitu eta aldatu daitezkeenak:

ZER EZ DUGU EGIN BEHAR?

- Gure senideak dioskuna zalantzan jarri, garrantzia kendu, bere lepotik barre egin edo mesprezatu. Honelako iruzkin gaitzesgarriak saihestu behar ditugu: «nola pentsa dezakezu horrelakorik!», «diozun hori lelokeriak baino ez dira» eta abar.
- Entzungor egin edo sintomei buruzko elkarrizketa saihestu, buru gaixotasuna duen pertsonak horietaz hitz egin nahi badu eta horrek lasaitzen badu.

- Buru gaixotasuna duen pertsonak bere haluzinazioak edo eldarnioak benetakoak direla sinesteko moduan jokatu, adibidez, ez da «berba egin» behar ahotsekin, ez «istorioa jarraitu» ere.
- Keinuak egin, disimuluz beste pertsona batekin xuxurlatu, pentsaturik ez duela igartzen edo ez dela konturatzen.
- Engainatzen saiatu, gertatzen denaz konturatzen ez dela suposatuz, inoiz promes faltsuak eginez ere, lasai dadin.
- Lasaitzeko bera ukitu, hori egin dezagun nahi ez badu.
- Psikiatria gaixotegian sartuko duzula mehatxatu. Gaixotegiratzea ez da inoiz zigor moduan aurkeztu behar.
- Jokabide erasokorra duenean, mehatxatu edo desafio egin bere mehatxuak betetzeko gai ote den. Irain eta eztabaiden borrokan sartu.

ZER EGIN DEZAKEGU?

- Jarrera segurua, lasaia eta irmoa hartu. Ahots apalean hitz egin, ez mehatxukorrean.
- Esaten duena adi entzun, sintoma horiek pertsonari nola eta zertan eragiten dioten jakin: ikaratzen ote duten, aginduak ematen ote dizkieten eta horien lepotik barre egin ote dezakeen. Horretarako sentitzen, entzuten eta/edo ikusten duenez galdetu diezaiokegu. Horretaz hitz egin eta ulertzen saiatu, gaian eragon gabe.
- Iruzkinik egin gabe entzun, eta bere beldurra edo haserrea ulertzen dugula jakinarazi.
- Giro zaratatsuetatik alde egin: giro lasai eta isila bilatu.

- Esaten duena entzuten, ikusten edo sentitzen duela badakigula esan eta ulertarazi, sinesten diogula eta gertatzen zaiona pasatzen ari den egoeragatik izan daitekeela azaltzen saiatu eta lasaitzen ahalegindu.
- Berarentzat interesa duen elkarrizketa edo jarduera batean arreta ipintzen saiatu. Haserre dagoen galdetu, zergatik dagoen eta horretaz hitz egin.
- Berarentzat mehatxua ez garela ziurtatu.
- Pertsona gaixoak min hartzeko edo besteei min emateko modukoak diren gauzak eta/edo altzariak bazterreratu.
- Leku librea eman, ez estutu, oratu nahi ez bada behintzat.
- Bistatik ez galdu, une oro jakin non dagoen.
- Normalean etxean baten bat badago buru gaixotasuna duen pertsonaren konfiantzakoa dena, horixe da pertsona egokia hari eusteko.
- Poliziagana edo guardiako epaitegira jo.

6 NOLAKO ETORKIZUNA IZANGO DUTE?

Pertsonen eta euren familien kezkarik handienetakoa da etorkizunari dagokiona, bereziki zaintzarik gehienak ematen dizkion pertsona prest ez dagoenerako, hau da, aita eta ama gehienetan.

Familia batzuk itzuri egiten diote kontu honi, estreserako eta ezegonkortasunerako faktoretzat daukatelako, baina egia besterik da, izan ere horretaz hitz egiteak eta geroaren plangintza egiteak beldurrak uxatzen ditu eta lasaitasuna eta ongizatea ematen du.

Familia batzuek pertsona gaixoa ezgaitzea eta tutorea (gehienetan senide bat edo instituzio bat) izendatzea bermetzat jotzen dute zaintza ziurtatzeko eta eraginpeko pertsonaren ondasun ekonomikoak eta higiezinak babesteko.

Buru gaixotasuna duten pertsonen autonomia eta garapen pertsonal handiagoa lortu eta mantentzeko behar dituzten laguntzak jasotzera bideratutako zerbitzu eta baliabideak dituzte, nahiz eta oraindik toki kopurua horien dibertsitatea nahikoa ez izan.

Baliabide horiek, esaterako, eguneko zentroak, laneratzeko zentroak, enplegu zentro bereziak, etxebizitza tutoredunak, aisia zerbitzuak eta astialdikoak... langune dira pertsonaren eremu guztiak jorratzeko (ongizate fisikoa, emozionala, pertsonen arteko harremanak, komunitateko harremanak...), pertsona bakoitzari bere bizitzako une bakoitzean behar dituen laguntzak eskaintzeko eta emateko.


7 MENPEKOTASUN LEGEAK BURU GAIXOTASUNA DUTEN PERTSONAK ERE HARTZEN DITU?

Menpekotasun legeak, buru ezgaitasun eta buru gaixotasun elkarteen mugimenduaren erreibindikazioari esker, gure taldea barne hartzen du.

Lege horrek aitortu egiten die menpekotasun mailaren batekin balioztatuta dauden pertsonen eskubidea dutela gizarte zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak jasotzeko. Menpekotasunaren balioztapen hori, zure udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuetan eskatu behar da, gizarte-langilearen bidez.

Balioztapena egin ondoren menpekotasun mailak ezartzen dira, hona hemen:

- I. maila. Menpekotasun apala: azpimaila bi.
- II. maila. Menpekotasun sakona: azpimaila bi.
- III. maila. Menpekotasun handia: azpimaila bi.



Hauek dira *menpekotasun maila zehaztu ondoren jasotzeko* eskubidea duten baliabide eta prestazioak:

1. **ZAINKETA INFORMALAK**, zerbitzu eta prestazio hauek hartzen ditu:
 - Telelaguntza
 - Prestazio ekonomikoa zaintzailarentzat, eta Gizarte Segurantzako alia, kotizatzailea izan badaitke (ez erretiroduna, ez bizisariduna).
 - Laguntza teknikoak
2. **ETXEKO ZERBITZUAK**, zerbitzu hauek hartzen ditu:
 - Telelaguntza
 - Etxeko Laguntza Zerbitzua: SAD.
 - Eguneko zentroa.
 - Aitseden programak (aldi baterako egotaldiak egoitzetan).
3. **EGOITZA ZERBITZUAK**
 - Egoitza zerbitzua
 - Eguneko zentroa